

XAHMARAN

JON ARRETXE



erein

XAHMARAN

1

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jaurlanitzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2009

ISBN: 978-84-9746-545-8

L. G.: XXXXXXXX

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Jon Arretxe

XAHMARAN

erein

erein argitaletxea

Xahmaran Ertasiako izaki mitologiko bat da. Buru bi dauzka, bata sugearena eta bestea emakumearena, suge-gorputzaren muturretan. Jakituriaren jainkosa da, sekretuen zaindaria, eta gaitasuna dauka bizia, heriotza nahiz hilezkortasuna emateko pertsoneri.

Ugalkortasuna sinbolizatzen du eta zorion-emaletzat jotzen da. Kurdistango etxeetan emakumezkoek ohikoa dute Xahmaranen margo edo bordatuak izatea euren logeletako hormetan.



Xahmaran

Jon Arretxe

GEREZI AROA

erein argitaletxea

1



–Ezinezkoa da honelako zauri eta erredurak bizikletatik jausita egitea.

Neskak ez zuen erantzun. Isilik zirauen, lurrera begira, oraindik ere kontsultategiko itxaron-gelan entzun berri zuen elkarrizketa buruan bueltaka zerabilela:

“Zikinkeria baino ez digute ekartzen ‘kanak’ hauek; oï-laskoena izan zen lehenengo, gero txerriena, orain batek daki zelako gripea, dena kanpotik dator, lehen hemen ez zegoen halakorik...”.

–Ez didazu esan behar –berriro andrazko medikuak, begitarte serioaz–, zelan egin dituzun zauri horiek benetan? *“Gaixotasunak ekartzen dizkigute, lana kentzen digute, eta gainera, gobernuak ontzat hartzen du, horixe da txarrena...”*. Edo nork egin dizkizun? –pausa bat egin zuen–. Ez duzu inor salatu nahi?

–Ez –isilpean erantzun zuen neska burumakurrak, pentsakor, atzamar puntak kiribiltzen zituela bere ile-adats beltzean.

“Haiek diote alemanok nahi ez ditugun lanak egiten dituztela, baina hori gezurra da. Ordaindu soldata duina hemengo bati eta ikusiko duzu zelan hartzen duen beharra. Baina badatoz haiek, lau ogerlekotan egiten dute gauza bera eta hemengooi kentzen digute lanpostua, eta gainera soldatak jaitziaz egiten dituzte...”

Nabaria zen ondoeza bata zuriko andrearen aurpegian.

–Zergatik ez duzu behingoz salatzen kabroi hori?

Neskak sorbaldak jaso zituen.

“Kaletik ikusten dituzun turkoek pobre itxura daukate denek, baina hemengo soldatekin aberatsak dira han, dirua euren herrialdera eramane eta sekulako txaletak egiten dituzte. Jakina, hemen debaldeko zerbitzuak dauzkate, dirulaguntzak ematen dizkiete eta azkenean denak aberatsak, hemengook baino hobeto bizi dira...”

–Arrazoi asko daude –esan zuen, kopeta jasoz eta medikuari so bere begi beltzez. Urte batzuk irabazi zituen, itxura aldetik, bizkar tentetze hutsarekin. Segundo pare baten neska lotsati bat izatetik emakume desengainatu bat izatera pasatu zen. Hori adierazten zuen, behintzat, haren begiradak.

–Beldurra diozu?

–Ez da hori arazo bakarra.

–Hemen normala da tratatu txarrak salatzea, emakume askok egiten dute.

“Eta hemengooi nork laguntzen digu? Beitu niri: bananduta, bi alabarekin... ez dakizu zertzuk pasatu ditudan, eta zuk uste duzu inork lagundu didala? Haiek, ostera, beitu haiei, zelako sakelako telefonoak, zelako autoak... Barre egiten digute, barre; gizonak batere lotsa barik, eta emakumeek ezkutuan, euren ditxosozko belo horien atzetik”.

–Nik ezin dut.

–Zeuk ikusi zer egiten duzun –isilaldi laburra egin zuen bata zuriko andreak, pazienteari pentsatzeko denbora emateko legez–, baina honelako kasu asko ikusi ditut, eta berdin jarraituz gero, egunen baten...

Alferrikako ahaleginetan zebilela jabetu zen azkenean eta buruaz ezezko keinuak egin zituen.

–Behartuta nago –jarraitu zuen– poliziar honen berri ematen.

–Hori egiten baduzu –erantzun zuen neskak–, akabo niretzat. Ez daukat paperik eta...

–Badakit, esan dit Asmîn-ek.

–Ziurrenik bota egingo naute Alemaniatic.

–Ez dauka zertan horrela izan.

Isilik geratu ziren biak segundo batzuetan, eta medikua berriro mintzatu zenean ahoskera askoz erabakitsuagoa atera zitzaion:

–Sentitzen dut hau esatea –bota zuen, pazienteari tinko so–, baina salaketarik egiten ez baduzu, ez zaitut berri hartuko nire kontsultan.

Isilaldi astuna sortu zen jarraian. Neskak, erantzun beharrean, gelako leihotik ikusten zen barruko patio griserrantz begira geratu zen. Hortik tarte batera egin zuen berba, ahots makalaz, gorputzeko zauriek baino askoz gehiago kezkatzen zuen arazoa azaleratuz:

–Segurua da haurdun nagoela?

–Gutziz segurua.

Neskak baiezko keinu isila egin zuen buruaz. Gero hausnarraldi goibelean murgildu zen, eta medikuak hartu behar izan zuen berriz hitza:

–Zer egingo duzu?

Sorbalda-jasotze hutsa izan zen haurdunaren erantzuna. Andreak zerbait idatzi zuen paper baten eta mahaiak bestaldeko pazienteari luzatu zion.

–Edozer erabakitzen duzula ere –gomendatu zion–, leku horretan lagundu ahalko dizute. Fidagarriak dira, ohituta daude paperbakoei-eta laguntzen.

Café 104 irakurri zuen neskak paperean, eta helbide bat. Ez zitzaion ezezaguna izen hori.

–Ez dakit zer egin –esan zuen, ahapeka–. Ez dakit ausartuko nintzatekeen abortatzen.

–Hori zeure erabakia da.

–Eta umea edukiz gero –jarraitu zuen haurdunak–, ez dakit gauza izango nintzatekeen behar bezala hazteko. Agian damutuko nintzateke...

–Abortatzekotan –eten zuen medikuak–, *Café 104*ko jendeak lagunduko lizuke modu segurua batez egiten.

Umea edukitzekotan, beste horrenbeste –pausa laburra egin zuen–. Eta eduki eta gero ikusiko bazenu ezinezkoa zaizula aurrera eramatea, beste irtenbide bat izango zenuke.

–Zein?

–*Babyklappe*-ak

–Zer dira?

–Nahi ez diren ume txikiak uzteko lekuak, leiho antzeko batzuk, kutxa berezi bat daukatenak –isilune laburra egin zuen–. Toki ezkutuetan kokatuta daude eta ez zintuzke inork ikusiko umea han uzten. Eta, gainera, berehala jasoko lukete eta esku onetan geratuko litzateke.

Neskak ez zuen erantzun.

–*Babyklappe* batzuk daude Munichen –erantsi zuen bata zuriko andreak–. Erosoena, beharbada, KMS ospitalekoa da. Umeen klinikako eraikinean dago, bazter ostendu baten. Dena dela, *Café 104*koek badaukate informazio hori eta askoz gehiago.

Ez zirudien haurdunak beste ezer esateko asmorik zeukanik. Hausnarketan jarraitu zuen tarte batez, harik eta bere iztar meheak igurtzi eta, zizpuru bat eginda, zutitu zen arte. Itxura hauskorreko gorputza zeukan, luzexka, liraina.

–Eskertzen dizut –esan zuen– zure kontsultan hartzea eta egin dizkidazun probak egitea.

–Ez arduratu –erantzun zuen andreak, bera ere zutitzen zela–. Lagun handi baten laguna zara eta onena opa dizut. Goraintziak eman Asmîni.

–Emango dizkiot.

Esan beharrekoak esanda zeudela iritzita, neskak mediku etsiak eskaini zion bostekoa onartu eta kontsultategitik irten zen. Serio so egiten zioten bi andre ilehorreren begiradekin egin zuen topo itxaron-gelan. Oso atonduta zeuden biak, ile-apaindegitik pasatu berri; itxura oneko arropa eta poltsak zeuzkaten eta zaila zitzaien nazka aurpegiera disimulatzea; edo, agian, ez zuten nahi. Segundo bakar bat eskaini zion bikoteari neskak. Gero alde egin zuen handik.